

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



KUTXATEKA. PHOTO CARTE FUNTSA. RICARDO MARTIN.

LEHEN BERTSOLARI TXAPELKETAKO EPAIMAHAIA

Ezagutzen den lehen bertsolari txapelketa 1935eko urtarrilaren 20an Donostiako Poxpoliña antzokian ospatutakoa da, "Bertsolari eguna" izenarekin. Ekitaldia Euskaltzaleak eta Euzko Gaztedik antolatu zuten. Prentsaren arabera, bi mila pertsona baino gehiago bertaratu ziren «ikusleen ikusminari bare eta soraio eusten dioten baserritar xume haiek ikustera». Lehenik eta behin epaimahaiburuak, Aitzolek, hitz egin zuen, norgehiagokako arauak azalduz eta hogeitabertsolariak aurkeztuz. Ekitaldiaren kronika oso luzea izan zen hainbat egunkaritan, hala nola "Día" egunkarian eta "Argia" astekarian, eta, besteak beste, «ze ahapaldi ederrak, emozioz, maitasunez, edertasunez eta poesiaz beteak entzun genituen...». Argazkian, epaimahai-kideak: Joseba Zubimendi, Joseba Ariztimuño "Aitzol", Toribio Alzaga, Joseba Olaizola, Imanol Lekuona eta Txomin Olano.